

## 2014-2015 ikasturteko hasiera datak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean

2014/09/02

Finkatu dira 2014-2015 ikasturteko eskolen hasiera datak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Graduak eta unibertsitate masterrak hasiko dira irailean, baina egun eta ordu desberdinetan, ikasketa eta mailaren arabera. Aditu tituluak, aldiz, urrian hasiko dira.

### Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak

- **1. mailako ikasleak** (eta 1. mailako ikasle errepikatzaileak). Hasiera: irailaren 15ean, astelehena, 14:00etan. Tokia: Eskoriatzako campusa.
- **2. eta 3. mailako ikasleak**. Hasiera: irailaren 22an, astelehena, 08:00etan. Tokia: Eskoriatzako campusa.
- **4. mailako ikasleak**. Hasiera: irailaren 8an, astelehena, 14:00etan. Tokia: Eskoriatzako campusa.

### Hezkuntza graduak Online / erdi-presentzialak

- **Harrera egunak:** irailaren 23an edo 25ean graduaren arabera. Ordua: 18:00etatik 21:00era. Tokia: Eskoriatzako campusa. Ikasleak posta elektronikoz jasoko ditu harrera egunarako zehaztasunak.

### Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua


- **1., 3. eta 4. mailako ikasleak**. Hasiera: irailaren 15ean, astelehena, 08:30etan. Tokia: Aretxabaletako campusa.
- **2. mailako ikasleak**. Hasiera: irailaren 15ean, astelehena, 14:00etan. Tokia: Aretxabaletako campusa.

### Unibertsitate masterrak

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra**. Hasiera: irailaren 29an, astelehena, 16:00etan. Tokia: Eskoriatzako campusa.
- **Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra**. Hasiera: irailaren 29an, astelehena. Tokia: Online.
- **Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra**. Hasiera: irailaren 29an, astelehena. Tokia: Online.

### Aditu tituluak

- **Komunikazioa erakundeetan aditu titulua**: Hasiera: urriaren 2a, osteguna, 15:00etan. Tokia: Bilbao Berrikuntza Faktoria, Bilbo.
- **Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulua**. Hasiera: urriaren 18an, larunbata, 09:00etan. Tokia: Eskoriatzako campusa.



Finkatu dira 2014-2015 ikasturtearen hasiera datak.